# Ahozko adierazpena lantzeko ipuina. Udaberria



Itzulpena:
@pausozpausopt

@susanaalbancess
albances.wordpress.com

Udaberrian Karlotari paseatzea eta loreak usaintzea gustatzen zaio. Zein lore ezagutzen dituzue zuek?






(Haurrek ezagutzen dituzten loreak esango dituzte).

Itzulpena:
@pausozpausopt

albances.wordpress.com

Bere gustukoenak bitxiloreak dira, kolore horia, zuria eta berdea maite ditu. Zein da zuen kolore gogokoena?







( Haurrek txandaka esan beharko dituzte beren kolore gustukoenak)

Itzulpena:
@pausozpausopt

albances.wordpress.com

albances.wordpress.com

Maiatzeko egun eguzkitsu batean, Karlota gurasoekin zihoan, eta orduan konturatu ziren Unai, bere anaiatxo txikia, basoan galdu zela.

Unaiiiii, Unaiiiiii oihuka hasi ziren hura aurkitzeko.

Lagunduko al diozu Karlotari bere anaia aurkitzen ?

Karlotak barre egiten entzun zion anaiari, zuhaixken atzean zegoen, baina... norekin hitz egiten ari ote zen? Erle bat izango zen, tximeleta bat...? Zein animalia aurkitu ote zuen Unaik?







(Haurrek animaliak esan beharko dituzte)

Maitagarri magikoa zen. Sasi batean erori zen eta Unaik irteten lagundu zion. Eta badakizue nola eskertu zion maitagarriak? Makilatxo magiko bat eman zion, zelaiko koloreak berak nahi zituen bezala aldatzeko.




Itzulpena: @pausozpausopt

albances.wordpress.com

Asteburuetan, beraz, Unai eta Karlota belarra urdin-urdin jartzen dibertitzen ziren, marigorringoak horiek, tximeleta berdeak laranja bihurtzen zituzten, tximeleta laranjak arrosa, eta gerezi gorriak more kolorekoak izatera pasatzen ziren.





Itzulpena:
@pausozpausopt

albances.wordpress.com

Paseatzen zuten bakoitzean, paisaiak desberdinak ziren. Eta zuek zer kolore jarriko zeniekete paisaiei?



Itzulpena:
@pausozpausopt

albances.wordpress.com